

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2021/2022 ikasturtea

**BELAUNALDIARTEKOTASUNA GIZARTE HEZKUNTZAN:
ADINEKOEN ETA ETORKIZUNEKO GIZARTE HEZITZAILE BERRIEN
TOPAGUNEA SORTUZ**

Egilea: JON RUBIO FRANCO

Zuzendaria: AMAIA EIGUREN MUNITIS

Leioan, 2022ko ekainaren 2an

Sarrera	4
1. Belaunaldi arteko esperientzien beharra biztanleriaren adintzeak suposatu duen erronka gainditzeko: bere onurak eta gizarte hezitzailearen zeregina	5
1.1 Biztanleriaren adintzea	5
1.1.1 Gaur egungo egoera	5
1.2 Belaunaldi arteko harremanak sustatzea jendartearen erronka berria	7
1.2.1 Belaunaldi arteko esperientzien garapen historikoa	10
1.3 Belaunaldi arteko esperientzien onurak	10
1.4 Gizarte hezitzailearen papera belaunaldiartekotasunaren aurrean	12
1.4.1 Irrati-baliabidea baliabide hezitzaile gisa	13
2. Esku-hartzearen diseinua eta garapena	14
2.1. Diagnostikoa	14
2.1.1. Testuinguruaren eta protagonisten inguruko informazioa	14
2.1.2. Informazioa biltzea eta aztertzea	15
2.2. Testuinguaren kokapena	15
2.3. Esku-hartzearen diseinua	17
2.3.1. Beharrianak identifikatzea, justifikatzea eta lehenestea	17
2.3.2. Beharrianak helburu bihurtzea	17
2.3.3. Esku hartzeko aukera metodologikoa proposatzea	18
2.3.4. Ekintzak	19
2.3.4.1. Denboralizazioa	22
2.3.4.2. Baliabideak: giza baliabideak eta materialak, ekonomikoak	22
2.3.5. Ebaluazioa	23
2.4. Esku-hartzea abian jartzea	25
2.5. Esku-hartzearen ebaluazioa	25
3. Ondorioak	28
4. Etika profesionala eta datuen babesa	30
5. Erreferentzia bibliografikoak	30

Belaunaldiartekotasuna Gizarte Hezkuntzan: Adinekoen eta etorkizuneko gizarte hezitzaile berrien topagunea aztertuz

Jon Rubio Franco
UPV/EHU

Gizarte hezkuntzak biztanleriaren adintzeak planteatzen digun gizarte-erronkarako erantzunak sortu behar ditu. Lan honen ardatza eremu seguru baten sorrera aztertea da, non BIZAN Judizmendiko zentroko adinekoek eta UPV/EHUko lehen mailako gizarte-hezkuntzako ikasleek bakarrizketa indibiduala alde batera utzi eta belaunaldien arteko elkarrizketa eta elkartruke bihurtzen duten, eta *podcast* programa bat grabatzen den, horren onurak ezagutarazteko. Horretarako, metodologia parte-hartzailea, aktiboa eta malgua erabili zen. Emaitzek agerian uzten dute belaunaldien arteko programak aldaketarako bide gisa eraginkorrak direla, eta adin guztietarako jendartearen aldeko apustua egiten duten gizarte esku-hartzeak behar direla.

Belaunaldiartekotasuna, gizarte hezkuntza, adin guztietarako jendarte, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), podcast-irradi komunitarioa

La educación social debe generar respuestas al reto social que nos plantea el envejecimiento poblacional. El presente trabajo se centra en el análisis de la creación de un espacio seguro en el que mayores del centro BIZAN Judizmendi y alumnas/os de educación social de primer curso de la UPV/EHU dejan a un lado el monólogo individual y lo convierten en diálogo e intercambio intergeneracional, y en el que se graba un programa de podcast, con el fin de dar a conocer los beneficios del mismo. Para ello, se utilizó una metodología participativa, activa y flexible. Los resultados revelan la eficacia de los programas intergeneracionales como medio de cambio y la necesidad de intervenciones que apuesten por una sociedad para todas las edades.

Intergeneracionalidad, educación social, sociedad para todas las edades, Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), podcast-radio comunitaria

Social education must generate responses to the social challenge posed by the ageing population. This paper focuses on the analysis of the creation of a safe space in which the elderly of the BIZAN Judizmendi centre and first-year social education students of the UPV/EHU leave aside the individual monologue and turn it into intergenerational dialogue and exchange, and in which a podcast programme is recorded, with the aim of publicising its benefits. A participatory, active and flexible methodology was used for this purpose. The results reveal the effectiveness of intergenerational programmes as a means of change and the need for social interventions that are committed to a society for all ages.

Intergenerationality, social education, society for all ages, Sustainable Development Goals (SDGs), community podcast-radio

Sarrera

Jendartearen etengabeko adintzea gaur egungo gizarteko fenomeno eta gainditu beharreko erronka kezkagarrienetako bat bihurtu da. Adinekoekin eta gainerako gizartearekin egiten diren prebentzio- eta esku-hartzeko planek lehentasuna izan behar dute botere publikoentzat, nazio- zein nazioarte-mailan, pertsonen bizi-kalitatea eta giza eskubideak bermatuz, belaunaldien arteko trukerako gune seguruak sortuz eta adin guztietarako jendartea lortzeko lan eginez.

Egungo jendarteak zein sistema horrek gainditu beharreko erronka bat aurkezten dute, zeinetan gizarte hezkuntzako profesionalek zeregin nabarmena duten. Mañósek (2008) adierazten duen moduan, gizarte hezitzaileek belaunaldien arteko gizarte-espazioen eraikuntza sustatzeko ekintza profesionala garatzen dute; eta horrekiko, esan beharra dago, sortzaile, bitartekari, dinamizatzaile eta ebaluatzaile rolak bete ditzaketela.

Esku-hartze hau BIZAN Judizmendi gizarte-zentroko adinekoen eta UPV/EHUko gizarte-hezkuntzako lehen mailako ikasleen arteko belaunaldien arteko programaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan oinarritzen da, belaunaldien arteko topaketetan eta *podcast* programa baten grabazioan oinarrituta, aurrera eraman den esku-hartzea bezalako esperientziak suposatu ahal dituen belaunaldien arteko elkarrizketaren ondorioak eta onurak erakusteko xedez. Esku-hartzea Campus Bizia Lab programaren baitan dagoen ODSIrratia proiektuaren barne kokatzen da, Unibertsitate-komunitateko zenbait eragile ezberdinak jasangarritasunaren alde lankidetzan aritzen diren.

Horri dagokionez, belaunaldien arteko topaketa seguru eta naturalen gabeziatik sortu da lan hau, egungo sistema indibidualistak sortuta, belaunaldien arteko harremanari eta horrek dituen onurei buruzko gizarte hezkuntzako prestakuntzan dagoen lan eta informazio faltagatik, eta baita komunikabideek adinekoei eta gazteekiko duten paternalismo eta homogeneizazioagatik ere. Hiru gai horiek aipatutako belaunaldien arteko esperientziaren bidez bideratu ziren.

Aurrera eraman den lanean, online egindako bost saioen bidez, gizarte-hezkuntzako ikasle gazteen eta adinekoen arteko topagune bat sortzeko lan egin zen, ulermenetik, elkartasunetik eta belaunaldien arteko errespetutik abiatuta eta belaunaldien arteko onurak ikustaraziz. Aipatutako helburu hori lortzeko egindako esku-hartzerako, parte-hartzailea, aktiboa eta malgua den metodologiaz baliatuko da, Sanchez et al. autoreek (2010) belaunaldien arteko programa planifikatu eta ezartzeko sarrerako gidan adierazitako printzipioetan oinarrituta.

1. Belaunaldi arteko esperientzien beharra biztanleriaren adintzeak suposatu duen erronka gainditzeko: bere onurak eta gizarte hezitzailearen zeregina

1.1 Biztanleriaren adintzea

Adintzearen kontzeptuak desadostasun handiak ekarri ditu definitzerakoan. Villafuerte et al. autoreek (2017) emandako definizioaren arabera denboraren joanak izaki bizidunengan eragiten dituen aldaketa morfologikoak, psikologikoak, funtzionalak eta biokimikoak; faktore psikosozialen ondorio direnak, eta ez soilik biologikoak da adintzea. Beraz, adintzea prozesu dinamiko gisa ulertu behar da, faktore anitzekoa eta gizaki guztiei atxikitzen zaiena (Lehr, 1980; Laforest, 1991; Gómez eta Curcio, 2002; in Alvarado eta Salazar, 2014). Ildo beretik, OMEk (Osasun Munduko Erakundea, 1974) adierazten duen bezala, prozesu fisiologiko horretan, sorreran hasten dena, bizitzaren ziklo osoan aldaketak eragiten dira; aldaketa horien erritmoak gizabanako baten organo desberdinetan zein beste gizabanakoekiko ezberdinak izanez.

Horrenbestez, biztanleriaren adintzea, Torres-Degrók (2010) dioenez, biztanleriaren egituraren ematen den aldatze-prozesu bat da, adinaren arabera dena eta non adinekoen hazkunde erlatiboa gertatzen dena, baita haur eta gazteen murrizketa erlatiboa ere. OMEk (1974) adierazten duen bezala, gainerako adin-taldeak adinekoak baino erritmo bizkorragoan haziko balira, biztanleriaren zahartze orokorra ez litzateke emango. Beraz, XXI. mendeko biztanleriaren adintzeak aldaketa sakonak dakartza herrialdeetako gizarte-, ekonomia- eta kultura-egituretan, herrialde garatuetan jada bizi izan den egoera izanik (Aranibar, 2001).

1.1.1 Gaur egungo egoera

Errealitate ukaezina da jendartea biztanleriaren adintzearen egoera baten aurrean dagoela. Biztanleriaren adintze horren faktoreak askotarikoak dira, baina zenbait adituen arabera (Abades eta Rayon, 2012, Doménech, 2019; Giró, 2006; Tarrés, 2002), bi faktore handitan batu daitezke: jaiotza-tasaren murrizketa, eta ondorioz, lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren hazkundearen murrizketa; eta, bestetik, bizi-itxaropenaren hazkundera eta hilkortasunaren zein morbiditatearen murrizketa. Bigarren hau, bizi-kalitatean eta osasun publikoan egindako hobekuntzengatik zein osasun-, gizarte- eta ekonomia-politikengatik eta osasun-teknologian garatutako aurrerapenengatik ematen da.

Datuei erreparatuz, mundu mailan historian lehen aldiz adinekoen (65 urtetik gorakoak) biztanleriak bost urtetik beherako biztanleria tamainan gaitu zuen 2018an, eta espero da haren tamaina 2019tik 2050era bikoiztu egingo dela, bost urtetik beherako

haurrena maila berdinetan egonkor mantenduko den bitartean (World Population Prospects, 2019 in Doménech, 2019).

Hori dela eta, azpimarratzekoa da zenbait egilek (Fernández eta Ponce de León, 2013; Giró, 2012; Herrera eta Guzmán, 2012) gertakari demografiko hura *adintzearen-adintze* gisa izendatu dutela; adin nagusietako taldeen hazkundeak etengabe egin du gora azken urteotan, adinekoak gero eta nagusiagoak baitira, eta, aldi berean, zaurgarriagoak eta mendekotasunaren maila handiagokoak.

Espainiako Gobernuaren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) biztanleriaren proiektzioak eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren (AIReF) aurreikuspen demografikoak¹ argitaratu zituen 2019an. AIReFren datuak aurreikuspen demografikoak dira, eta kontuan hartzen dituzte beste herrialde batzuetako ekonomia- eta portaera-kontsiderazioak (migrazio-mugimenduak). Beraz, ez dira soilik oraintsuko bilakaera demografikoan oinarritzen, INEk egindako biztanleria-proiektzioetan egiten den bezala. Datu anitz horien artean, horietako bi aipatzea funtsezkoa da.

Lehenik 2020-2050erako proiektatutako bizi-itxaropena² nabarmendu behar da; izan ere, INEk egindako proiektzioan, 2050ean, 86,9 urtera iritsiko litzateke, eta datu hori ez da oso desberdina AIReFen aurreikuspenekin alderatuta; izan ere, haren arabera, bizi-itxaropena 87 urtekoa izango litzateke 2050ean. Beraz, adierazi behar da, kontuan hartuta 2020ko datuak COVID-19ak eragindako egoeraren ondorio direla, non gain-hilkortasuna aurki dezakegun, 2019koarekin alderatuz, hurrengo 30 urteetako bizi-itxaropena 3 urte baino zertxobait gehiago igoko dela, ondoriozta daiteke, biztanleriaren adintzea areagotuz.

Aipatu beharreko bigarren datua, 64 urtetik gorako biztanleria³ da, non alde txikia dagoen bi estimazioen artean. AIReFen aurreikuspenen arabera, 64 urte gorako biztanleria hori 17 milioi pertsona ingurukoa izango da, biztanleriaren ia %31a (2050erako aurreikuspenen arabera, 55 milioi pertsona inguru). INEk 2050erako proiektatutako 64 urtetik gorako biztanleriari dagokionez, 15,7 milioikoa izango da, hau da, proiektatutako biztanleriaren % 31,46a (49,9 milioi biztanle).

Gaur egungo gizartearen bizi-itxaropena handiagoa izatea gizadiaren lorpena da,

¹ Informazio gehigarria: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (2019) bildutako INEren proiektzioak eta AIReFeren aurreikuspenak https://www.miteco.gob.es/es/reto-demografico/temas/documentos-interes/proyeccionesdemograficas_ine_airef_tcm30-517794.pdf

² Ikus 1. eranskina: Bizi-itxaropena jaiotzean (2020-2050 proiektatua).

³ Ikus 2. eranskina: 64 urtetik gorako biztanleria (2020-2050 proiektatua).

baina Herrerak eta Guzmánek (2012) adierazten duten bezala, horrek ekar ditzakeen ondorioei irtenbide egokirik ematen ez bazaie, gaur egungo gizartearentzat arazo garrantzitsua eta larria bilakatuko da. Lehen aipatu diren faktoreek, hala nola osasun-arloko aurrerapenek edo osasun-, ekonomia- eta gizarte-politikek, pertsonen denbora gehiago bizi ahal izatea sustatu dute, baina fenomeno demografiko horrek prebentzio-neurri sozial berriak eskatzen ditu, bai eta erakunde publikoen neurri leungarriak eta esku hartzeko estrategia berriak ere (Fernández eta Ponce de León, 2013). Hortaz, egungo jendartea erronka nabarmen baten aurrean kokatzen da, hura gainditzea funtsezkoa izanik herritarren beharrak asetzeko eta herritar gisa dituzten eskubideak zein haien garapenerako bizi-baldintza duinak eta lagungarriak bermatzeko. Horri aurre egiteko kontzeptu nabarmenak agertu dira, adintze aktiboa, belaunaldiartekotasuna edota adin guztietarako jendartea, besteak beste.

1.2 Belaunaldi arteko harremanak sustatzea jendarterearen erronka berria

Azken hamarkadan adintze aktiboaren kontzeptuaren inguruko eztabaida piztu da, adintzea eta adintzearen adintzearen aurrean eta adinekoen duintasunaren zein bizi-kalitatearen alde esku hartzeko xedez. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME, 2002) honela definitzen du adintze aktiboa: adinekoei ongizate fisikoa, psikikoa eta mentala indartzeko aukera ematen dien prozesu bat da, gizartean beren eskubideak, beharrak, nahiak eta gaitasunak kontuan hartuta parte hartzeko aukera emanez.

Horrenbestez, OMEn (2002) aburuz, adintze aktiboaren helburu nagusitzat hartzen da adintze ahala autonomiari eta independentziari eustea, kontuan hartuta zahartzea ingurukoaren testuinguruan ematen dela. Hori dela eta, belaunaldien arteko interdependentzia eta belaunaldi arteko elkartasuna zein harremanak (gizabanakoen artean eta adinekoen zein gazteen belaunaldien artean elkarri ematea eta jasotzea) adintze aktiboaren printzipio garrantzitsuak dira; izan ere, belaunaldien arteko ikaskuntzak adin-desberdintasunak gainditzen ditu, kultura-balioen transmisioa hobetzen eta adin guztien balioa sustatzen du.

Gutiérrez eta Hernández-en (2013) arabera:

Las relaciones intergeneracionales son inherentes a la condición humana. Sin embargo, múltiples variables están dando lugar a una sociedad cada vez más fragmentada desde el punto de vista de la edad. El distanciamiento generacional es una realidad que caracteriza a las sociedades actuales, en un momento en el que el envejecimiento de la población obliga, hoy más que nunca, a inventar nuevas formas de solidaridad y cooperación entre generaciones. [Belaunaldien arteko harremanak giza izaerari datxezkio. Hala ere, aldagai ugari ari dira adinaren ikuspegitik gero eta zatituagoa dagoen

jendarte bat sortzen. Belaunaldien arteko urruntzea gaur egungo gizarteen bereizgarri den errealitatea da, eta une horretan, biztanleriaren adintzeak, gaur egun, inoiz baino gehiago, belaunaldien arteko elkartasun- eta lankidetzeta-modu berriak asmatzera behartzen du.] (215. orr).

Idea horretatik abiatuta, belaunaldien arteko eraginari heltzeko, oinarrizkotzat hartzen da Madrilen 2002an egin zen Adintzeari buruzko Bigarren Mundu Biltzarraren “adin guztietarako jendarte” leloari erreferentzia egitea. Biltzar horretan, Adintzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Plana eta Adierazpen Politikoa onartu ziren, eta horrek inflexio-puntu bat ezartzen du mundu mailan, adin guztietarako gizartea eraikitzeak dakarren erronka erabakigarriari dagokionez.

Horrenbestez, Nazio Batuen (1995) arabera:

Una sociedad para todas las edades es aquella que ajusta sus estructuras y funcionamiento y sus políticas y planes a las necesidades y capacidades de todos, con lo que se aprovechan las posibilidades de todos, en beneficio de todos. Además, una sociedad para todas las edades permitiría a las generaciones efectuar inversiones recíprocas y compartir los frutos de esas inversiones, guiada por los principios gemelos de reciprocidad y equidad. [Adin guztietarako jendarte bere egiturak eta funtzionamendua zein politikak eta planak guztion beharretara eta gaitasunetara egokitzen dituen da, eta, beraz, guztion aukerak aprobetxatzen dira, guztion onerako. Gainera, adin guztietarako jendarte batek aukera emango lieke belaunaldiei elkarrekiko inbertsioak egiteko eta inbertsio horien emaitzak partekatzeko, elkarrekikotasunaren eta ekitatearen printzipio bikiek gidatuta.] (9. orr.).

Adierazpen politiko horretan aitortzen da ekintza hitzartua behar dela adinekoak bihurtzen diren heinean pertsonen aukerak eta bizi-kalitatea eraldatzeko eta laguntza-sistemen iraunkortasuna bermatzeko. Ekintza Planaren ardatza giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak sustatzea eta babestea da, adin guztietarako jendarte lortzeko beharrezkoa baita. Adin guztietarako jendarte batek pertsona adinekoek gizarteari laguntzen jarraitzeko aukera izatea du helburu, eta, hori lortzeko, funtsezkoa da belaunaldien arteko elkartasuna indartzea maila guztietan, bakoitzaren behar partikularrak kontuan hartuta, eta belaunaldien arteko harreman solidarioak bultzatuz (Nazio Batuak, 2002).

“Adin guztietarako jendarte” lelotzat hartuta, kontzeptuan sakonduz, adin guztietako pertsonak bizi ahal izatea ahalbidetzen duen gizartetik haratago doa; aitzitik, elkarbizitza eta interdependentzia jartzen ditu oinarrizkat, eta, gainera, haientzako pentsatuta dagoen gizarte bat da, haien ongizatea bermatzeko eta haien premiei behar bezala erantzuteko gai dena. Gainera, mahai gainean jartzen du adintze-prozesu horren barruan lehentasunezko arreta eman behar zitzaizela adineko pertsonari, bost gai nagusi kontuan hartuz: independentzia, parte-hartzea, zaintza, autoerrealizazioa eta duintasuna; gizarteen garapen

sozioekonomikoarekin guztiz bateragarria izan zitekeen arreta izanez (Hartu-Emanak, d.g.).

Hartu-emanak⁴ (d.g) elkarteak adierazten duen bezala, belaunaldien arteko programen azken helburua adin guztietarako jendartea eraikitzea da. Belaunaldien arteko kontzeptuaz ari garenean, lehen zailtasun nabarmena agertzen zaigu kontzeptu horren definitzerakoak, ezin baitugu osotasun teorikorik aurkitu.

Belaunaldien arteko esperientziak, Newmanen arabera (1997 in Newman eta Sanchez, 2007), gazteak eta adinekoak elkartzen dituzte bi taldeen mesederako diren esperientziak partekatzeko, eta bi taldeen ongizatea eta segurtasuna mantentzen laguntzen duten laguntza-sistema positiboak ematen dituzten elkarrekintzetan inplikatzeko diseinatuak dira. Hatton-Yeok eta Ohsakok (2001 in Newman eta Sanchez, 2007) diotenez, programa horiek baliabideak modu zehatz eta jarraituan trukatzeko eta bi belaunaldien artean ikasteko balio dute, elkartrukerako garraiobide gisa hartuz.

Ventura-Merkelek eta Lidoffek (1983, in Newman eta Sanchez, 2007) adierazten dute jarduera horiek gazteen eta adinekoen artean trebetasunak, ezagutzak eta esperientziak partekatzea dakartela. Ildo beretik, Sanchezek eta Diazek (2005) azpimarratzen duten bezala, programa horietan ematen den trukea espazioaren kointzidentziaz harago doa; izan ere, adinekoak, haurrak eta gazteak elkarrekin egoteak baino gehiago, parte hartzaileen artean trebetasunak, ezagutza eta esperientzia partekatzea ekarri behar du. Harreman horiek, Hatton-Yeok dioen bezala (2015 in Amer, et.al, 2016), jarduera horietan parte hartzean, inplikaturako belaunaldien bizi-kalitatea sustatu behar dute; belaunaldien artean errespetu eta ulermen handiagoa sustatzen duten jarduerak baitira, komunitate kohesionatuagoak sustatzeaz gain, gazteek eta adinekoek eskaintzeko dituzten baliabide positiboetan oinarritzen direnak.

Horrenbestez, Newman eta Sanchez autoreek (2007) zuzen adierazten duten moduan, kontzeptuaren definizioa aldatzen bada ere, badira funtsezkoak eta antzekoak diren hiru elementu: belaunaldien arteko programa guztietan belaunaldi desberdinetako pertsonak parte hartzen dute, parte-hartzeak pertsona horientzat onuragarriak diren helburuak lortzera bideratutako jarduerak suposatzen ditu, eta programari esker parte-hartzaileek elkarren arteko truke-harremanak izaten dituzte.

Hortaz, belaunaldien arteko esperientzien inguruan aritzean, hurrengo definizioa defendatuko da: ikuspuntuak eta bizipenak trukatzeko eta belaunaldi desberdinen arteko interakziorako jarduerak inplikatzeko dituzten esperientziak, belaunaldi bakoitzak onura

⁴ Informazio gehigarria: Hartu Emanak, Etengabe Ikasteko eta Gizartean Parte Hartzeko Helduen Elkarte <https://www.hartuemanak.org/>

indibidualak eta komunitatearentzako onurak lortuz.

1.2.1 Belaunaldi arteko esperientzien garapen historikoa

Belaunaldien arteko esperientziek dakartzaten onurekin jarraitu eta sakondu aurretik, haien garapen historikoa nabarmendu behar da. Newman eta Sanchezen arabera (2007), garapen hori hainbat fasetan bana daiteke: lehenengoa, AEBn, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, belaunaldien arteko uruntasun nabariak bultzatuta; bigarrena, laurogeita hamarreko hamarkadara arte, AEBetan eta Kanadan, premia kultural, sozial eta ekonomikoekin lotutako gizarte-arazoei heltzeko; eta hirugarrena, gaur egun, Europan (Herbehereak, Erresuma Batua edo Espainia esaterako) susperraldian dauden programak, garapen komunitariorako bideak direnak, agian, adin guztietarako gizarte baten eraikuntzarekin gehien bat datorren helburua dena.

Gainera, aurrera joan baino lehen, funtsezkoa da belaunaldien arteko elkartasunaren kontzeptuaz hitz egitea, labur-labur bada ere. Newman eta Sanchezek (2007) azpimarratzen duten moduan, belaunaldien arteko programak elkartasun hori gauzatzeko tresna gisa agertzen dira, laguntza, sostengua, lankidetzeta eta elkarrekikotasuna terminoak ezaugarritzat hartuta. Hatton-Yeok (2007) adierazten du elkartasun hori modu orokorragoan ezaugarritu behar dela belaunaldiek elkarrekiko onurarako parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko aukera ematen duten sistema formalen zein informalen, praktiken eta elkar ulertzearen ikuspegitik.

1.3 Belaunaldi arteko esperientzien onurak

Arestian aipatu den bezala, belaunaldien arteko elkartrukeak onurak ekarri behar ditu, bai belaunaldi desberdinetako gizabanakoentzat, bai komunitatearentzat.

Alde batetik, adinekoei dagokienez, zenbait azterlanek erakutsi dute belaunaldien arteko esperientzia batean parte hartzeak adinekoen ongizate psikologikoa, fisikoa eta soziala hobetzen duela (Gutiérrez eta Hernández, 2013); eta haien buruak baliagarriago ikusten dituztenaz zein buruz eta fisikoki hobeto sentiarazteaz gain, ez direla hain diskriminatuta sentitzen (Sánchez et al., 2008 in Gutiérrez eta Hernández, 2013).

MacCallum et al. autoreek (2006 in Pinazo eta Kaplan, 2007) adierazi dutenez, asko dira programa horiek adineko pertsonengan dituzten onurak, eta honako hauek azpimarratuz: bizitasuna areagotzea, gozatzea eta jarduera fisikoetan inplikatzeta, balio pertsonalaren sentimendua areagotzea, ikasteko aukerak handitzea, isolamendutik ihes egitea, iraganeko bizitzako esperientzietatik estimu berria izatea, trebetasunak garatzea (bereziki, gizarte-trebetasunak eta teknologia berrien erabilera), familian eta komunitatean

berriz integratzea, autoestimua eta motibazioa areagotzea, gazteei buruz ikastea, ezberdintasunaren edota errespetuaren aurrean jartzea, ohorea eta komunitateari egindako ekarpenaren aintzatespena, besteak beste.

Beste alde batetik, belaunaldien arteko programek haurren eta gazteengan duten eraginari dagokionez, Marx et al. autoreek (2004 in Pinazo eta Kaplan, 2007) aipatzen duten bezala, jasotako onurak hauek dira: aldaketa positiboak adinekoei buruzko pertzepzioetan eta jarreretan (enpatia areagotzea), adintzeari buruzko ezagutza areagotzea, gizartearen aldeko jokabideak (jokabide prosozialak) areagotzea, autoestimua areagotzea eta eskolarekin harreman hobea izatea (asistentzia handiagoa, harekiko jarrera positiboagoak, portaera hobea, zereginenekiko interes handiagoa), zein garapen akademiko hobea izatea eta gizarte-harremanak hobetzea.

Horrenbestez, MacCallum et al. autoreek (2006 in Pinazo eta Kaplan, 2007) egindako ikerketari bueltatuz, honako onura hauek aurki eta gehitu ditzakegu: zailtasun uneetan helduen laguntza izatea, gizarte-erantzukizunaren sentimendua areagotzea (zentzu zibikoa areagotzea), adinekoen heterogeneotasuna gehiago ezagutzea eta haienganako errespetua eratzea, osasungarriagoak egotea, gozamina eta alaitasuna, edota arazoan aurrean (bereziki drogak, indarkeria eta jokabide antisozialak) aisialdi alternatiboko jarduerak, besteak beste.

Bestalde, komunitateak berak lortzen dituen onurak gogoan hartuta, Santiagok (2019) adierazten du esperientzia horiek gizarte-mailan eragina dutela komunitate osoan, eta, besteak beste, honako hauek aurki ditzakegu: portaera sozial eta kolektiboko ereduak sortzea, kohesio kulturala eta soziala, edozein belaunaldi-talderen oztupoak/mugak eta estereotipoak ezabatzea, boluntariorzak zein zerbitzu komunitarioak garatzea edota azpiegiturak mantentzea jarduera aniztasun handi baten bidez. Izan ere, Granville eta Hatton-Yeoren arabera (2002 in Pinazo eta Kaplan, 2007), proiektu horiek sare sozialak berreraiki, komunitatearen gaitasuna garatu eta adin-talde guztientzako gizarte inklusiboa sor dezakete.

Azkenik, MacCallum et al. autoreen (2006 in Pinazo eta Kaplan, 2007) ikerketarekin bat eginez, belaunaldien arteko elkartruke horiek honako onura komunitarioak ahalbidetzen dituzte: kultura eraiki eta indartzea, komunitatean zubiak garatzea, portaera-zibikoko ereduak eskaintzea, aukera komunitarioak eta azpiegitura publikoak eraiki, mantendu eta biziberritzea, arte publikoa ekoiztea, historia komunak sortzea edo ingurumena zaintzea, besteak beste.

Gainera, nabarmendu behar da belaunaldien arteko esperientziak tresna onak direla

edadismoak, hau da, pertsona batenganako aurreiritzizko estereotipoak edo jarrerak adinekoa izateagatik soilik mantentzeak (Butler, 1969, in Bárcena et al., 2009), murrizteko edo horiei aurre egiteko behar sozialari erantzuteko. Joera *edadista* horiek murriztea eta aurre egitea ezinbestekoa da, Bárcena et al. adituek (2009) adierazten duten bezala, adinkeria hori aurreiritzi edo diskriminazio modu bat da, eragin kulturaletatik sortzen dena eta profesionalen, adinekoen eta haien familien sinesmen-sistemaren parte dena, adineko pertsonen biztanleriaren ongizate-maila hobek sustatzeko funtsezkoa dena. Gizarte hezitzaileek joera horiek jendartearen hezkuntza eta jarreratik desagerrarazteko eta belaunaldien arteko esperientziak suposatzen dituzten onurak ahalbidetzeko eta sustatzeko lan nabarmena bete dezakete.

1.4 Gizarte hezitzailearen papera belaunaldietartekotasunaren aurrean

Belaunaldien arteko dinamiken garapenean, Mañósek (2008) adierazten duen moduan, gizarte-hezitzaileak zeregin garrantzitsua izan du eta izango du; izan ere, bitartekari-lana eginez, belaunaldien arteko bakarrizketa belaunaldien arteko elkarrizketa bihurtzen du, belaunaldien arteko gizarte-espazioen eraikuntza sustatzeko gai izanda. Gainera, gizarte-hezitzaileen ekarpena funtsezko baliabide bihurtzen da gizabanakoen sozializazio formalaren prozesua aktibatzeke, berdinen eta belaunaldien arteko pertsonen eta taldeen arteko gatazkak kudeatzeko, bizimodu osasungarriko ohitura berriak hartzeko, aldaketetara egokitzeke jokabideak eta jarrerak aldatzeko eta parte hartzen ikasteko (Calvo de Mora, 2014).

Nabarmentzekoa da, halaber, Martinez de Miguel et al. autoreek (2016) adierazten duten bezala, esku-hartze soziohezitzaile komunitarioen alde egitea, adinekoen garapen sozial eta pertsonalean eragin eta inpaktu nabarmena izan dezaketenak; esku-hartze soziohezitzaile bideratuak, ez protagonizatuak, gizarte hezitzaileen ekintza profesionalaren bidez. Gizarte hezkuntza funtsezko alternatiba gisa aurkezten da adinekoen arlo soziohezitzailean; eta lanbide horrek kolektibo horren dinamizazioa sortu behar du, eta pertsona horien bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko ekimen egonkorrak eta autonomoak abiarazi behar ditu, parte-hartzean arreta jarritz (Martinez de Miguel et al., 2016).

Adinekoen egungo ezaugarri heterogeneoak direla eta, beren eskubide guztiak bermatzeko, langile kualifikatuak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea eskatzen da, modu holistikoa, eraginkorrea eta kalitatezkoa artatzeko; eta eskaera garrantzitsu horren aurrean, gizarte-hezitzaileak gai dira paternalismotik eta asistentzialismotik urrun dauden esku-hartze soziohezitzaileak burutzeko eta bideratzeko, profesional horiek adinekoen herritartasun aktiboa sustatzen eta eraikitzen lan egitea funtsezkoa izanik (Belchi et al, 2017).

Gainera, ezinbestekoa da aipatzea, Gallardo-Lópezek eta García-Lazarok (2021) diotenez, gizarte-hezkuntzak ikaskuntza indibidualak eta kolektiboak sustatzen dituzten gizarte- eta hezkuntza-ekimenak sor ditzakeela, eta garapen jasangarrirako tresna gisa eratzuz, prestakuntzan, kontzientziazioan, partaidetzan, lankidetzan eta herritarren inplikazioan oinarrituta. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) gizarte-dinamika eta -portaeretan benetan sartzeak etengabeko prestakuntza-prozesu bat izan behar du, pertsona guztiek beren ingurunearekin duten parte-hartzea eta konpromisoa sustatzeko, inguruan dituzten arazoekin konprometituta dauden zein integartzeko, errespetatzeko eta inguruneetara egokitze gaitasuna duten herritarren gizarte-premia premiazkoa izanez (Gallardo-López eta García-Lázaro, 2021).

Horrenbestez, hezitzaileak esku hartzeko eta belaunaldien arteko lankidetzarako esperientzietan eragin dezake, adineko jendea baztertzea eragiten duten faktoreak apurtzen eta gainditzen lagunduz, jendartea elkartasunaren eta lankidetzaren balioekiko sentibilizatzuz, eta adinekoei dagokienez jendarteak dituen premia orokorretan eragiten duten esku-hartze esperientziak proposatuz (Mañós, 1995). Horretarako, baliabide eta esku hartzeko lan-eremu anitzak topa daitezke, haien artean irratia-baliabidea aurkituz.

1.4.1 Irrati-baliabidea baliabide hezitzaile gisa

Abarrateguik (2019) adierazten duen bezala, irratia jendartean parte hartzeko baliabide ona da; izan ere, gutxien entzuten diren kolektiboek ahotsa emateko aukera ematen du, gizarteratzeko tresna ezin hobea izateaz gain; izan ere, edozein pertsonak parte har dezake prozesuan, rol batetik edo bestetik, komunikatzea gizakiari inplizituki dagokion kontua baita, eta pertsona guztiek ekarpenak egin ditzakete. Irrati-jarduerak beren iritziak emateko eta ezagutzak trukatzeko bide bat ematen die parte-hartzaileei, belaunaldien arteko elkarrizketa eta belaunaldien arteko ezagutzen (kultura-ondare inmateriala) transmisioa ahalbidetuz; eta horrez gain, alfabetizazio digital eta mediatikoarekin laguntzen du, maila sozialean eta digitalean elementu inklusiboa izanez (Abarrategui, 2019).

Irrati-baliabideak hezkuntza-balioak ematen ditu, talde-lana, ahozko adierazpena eta ulermena hobetzea, gaurkotasanari buruzko eztabaida, besteen iritziekiko errespetua, iragan komunaren ezagutza edota kritikarako gaitasuna sustatzen baititu (Torregrosa, 2006). Horrenbestez, irratia hezkuntza-, gizarte- eta kultura-baliabidea bihur daiteke, hainbat adin-taldek aisialdi partekatuko tarteetan parte har dezaten, bizi-kalitatea, pertsonen arteko harremanak eta bizitzaren zikloaren beste etapa batzuk ezagutu eta ulertzeko aukerak areagotzeko xedez (Arias et al., 2008).

Mendearren aldaketarekin, digitalizazioarekin eta Internetaren gorakadarekin, irratia

transmisio-modu berrietara moldatu behar izan da, zuzeneko sarbidea duten plataformetan eskuragarri dauden edukiak sortuz, non denbora eta espazioa lehenesten ez diren (Melgarejo eta Rodríguez, 2013). *Podcastek*, irriaren mundua ez ezik, ohituta geunden kontzepzioa ere iraultzea lortu dute, erabiltzaileen entzuteko premiekin bat era estuago batean datorren irratia eskainiz (Melgarejo eta Rodríguez, 2013).

Gainera, azpimarratu behar da edozein pertsona izan daitekeela bere edukien sortzailea eta Internet bidez igorri dezakeela, eta, Sanz et al. autoreek (2021) adierazi bezala, *podcast* parte-hartzaileak ezagutza, komunikazioa eta ikaskuntza sortzen duten prozesuen protagonista aktiboak dira, gizarte-transferentziako protokoloak aktibatuz. *Podcastaren* ospea hainbat alderditan oinarritzen da, hala nola edukien erabilerraztasunean, sarbidean, ekoizpenean edo banaketan, eta sarean *podcast* aniztasun handia aurki daiteke, interesgarriak izan daitezkeen eremu guztietara heltzen saiatzen direnak, baita gutxiengo txikientzat ere (Melgarejo eta Rodríguez, 2013).

2. Esku-hartzearen diseinua eta garapena

2.1. Diagnostikoa

2.1.1. Testuinguruaren eta protagonisten inguruko informazioa

Aurrera eramango den proiektuan, belaunaldiarteko harremanak, ezagutza eta elkarlana lantzeko eta sustatzeko xedez, bi adin-talde ezberdinek parte hartuko dute: gazteak eta adinekoak.

Batetik, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Leioako *Campusean*, Gizarte Hezkuntzako gradua ikasten duten 1. mailako gazteek parte hartuko dute, '*Hezkuntza Komunikazioa eta Harremanak*' irakasgaiaren barne. Taldea 6 kidez osatuta dago, bi emakume eta lau gizon izanik eta Euskal Herriko herri ezberdinetako 18 eta 21 arteko gazteak izanez.

Bestetik, proiektuan parte hartuko duten adinekoak Gasteizko adinekoen zentro soziokulturalak biltzen dituen BIZAN zentroen sareko kideak dira, 75 urte gorako 6 adinekoek taldea osatuz. BIZAN Adinekoen Gizarte eta Kultura Zentroak⁵, bere araudi arautzailean (2009) jasotzen den moduan, adinekoen bizikidetzara, harremanetara eta parte-hartzera bideratutako topaguneak dira, zahartze aktiboa sustatzeko lekuak izanda, non pertsonen arteko eta taldeko harremanak eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzen diren, adinekoentzako eta haien familientzako baliabide komunitario bat osatuz, udalerriko auzo anitzetan eta kultura-baliabideekiko loturan kokatuz. Esku hartzen duten eremuaren arabera,

⁵ Informazio gehigarria: [Vitoria-Gasteizko Udalaren web-orria - Adinekoentzako Zentro Soziokulturalak orain BIZAN Sarea dira](#)

zenbait zentro anitzak aurki ditzakegu, baina zehazki proiektu honetan parte hartuko duen zentroa BIZAN Judizmendiko izan da.

Sanchez et al. autoreei jarraiki (2010) belaunaldien arteko programa bat eraginkortasunez abian jartzeko zazpigarren printzipioan adierazten duten moduan, pertsona gutxi batzuk izanez gero, diseinatutako proiektuan bezala, haien arteko elkarrekintza biziagoa izango da, eta parte-hartzaileek arreta eksklusiboagoa eskaini ahal izango diote elkarri; eta aipatzekoa da ere, komenigarria izango dela, betiere, taldeak kopuruan oso desorekatuta ez badaude, berdintasun-egoera bat hautemateko eta egoera horretan egoteko xedez.

2.1.2. Informazioa biltzea eta aztertzea

Esku-hartzea gauzatu baino aurretik, BIZAN Judizmendi adinekoen gizarte eta kultura zentroko gizarte hezitzailearekin kontrastatu da, esku-hartzearen ideiei eta ildo nagusiak aurkeztuz. Horren helburu nagusia zentro eta taldeko kulturari eta ezaugarriei buruzko informazioa eta esperientzia testuinguruan kokatzen lagunduko duten datu guztiak biltzea izan da. Gainera, gizarte-hezitzailearen iritzia, antzeko esperientzien antolatzailea izan den edota parte hartzen duen profesionalaren aldetik, funtsezkoa da jardueraren planifikazio eta inplementazio egokirako. Hain zuzen ere, esku-hartze eremu horretan lan egiten duen profesional gisa, proiektu hau garatzeko oso lagungarriak diren hainbat gaitasun, jakintza eta trebetasun ditu, eta horretaz baliatzea funtsezkoa da.

2.2. Testuinguaren kokapena

Aurrera eramanean den esku-hartzea ODS Irratia proiektuaren barne kokatzen da, UPV/EHUko komunitatea jasangarritasunerantz hurbiltzeko baliabide ireki eta dinamikoa dena eta, Campus Bizia Lab programaren baitan, 50 pertsona baino gehiagok (irakasle, ikasle, AZP zein gizarte-erakundeak) lankidetzan aritzeko dituzten kezka eta motibazioetatik sortu dena.

Egun gainditu eta aurre egin beharreko krisi ekosozialaren erronkaren aurrean gaude, eta horretarako, pertsonen gaikuntza, parte-hartzea eta jendarte osoaren konpromezua handitzea eskatzen da. Izan ere, Nazioarteko Agenda 2030ak ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) testuingurua dugu.

2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 helburu onartu zituzten Garapen Jasangarrirako Agenda 2030raren zati gisa. Agenda horretan, helburuak 15 urtean lortzeko plan bat ezartzen da. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)⁶ 17 dira, 169 xede zehatzak

⁶ Informazio gehigarria: [Objetivos y metas de desarrollo sostenible](#)

dituztenak eta izaera integratzailea (ekonomia, gizartea eta ingurumena) dutenak. Gainera ikuspegi ekosoziala beregain hartzen dute: *pertsonak* (duintasuna eta berdintasuna bermatzea), *oparotasuna* (bizitzak oparoak eta onak naturarekiko harmonian), *bakea* (bakea, justizia eta jendarte inklusiboak sustatu), *aliantzak* (aliantza globala agenda burutzeko) eta *planeta* (baliabide naturalak eta klima babestea). Hortaz, esan daiteke ODS Irratiak jasangarritasunaren ikuspegi zabaletik Unibertsitate-komunitateko pertsona guztiei hitza ematea duela helburu, haien botere-egoera, generoa, adina, gizarte-egoera eta abar edozein izanik ere; irрати komunitarioak gogoeta zein esperimenezkoak potentzialtasun handia du eta.

Belaunaldiartekotasuna zein adin guztietarako jendartearekiko harreman estuago dituzten GJHetan sakonduz, esku-hartzearen bidez lan eta sustatuko direnak baitira, hasteko 16. helburua aipatzeko beharra dago, garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzearena, guztiontzako justiziarako sarbidea erraztearena eta erakunde eraginkorrek, arduratsuak eta inklusiboak maila guztietan sortzearena. Horrekin bat, 11. helburua aurki ditzakegu, hiri eta komunitate jasangarriak lortzea xede daukana. Komunitatea, eta bere agente guztiak, erabakiak hartzen eta aldaketa-prozesuan inplikatu behar dira, gaur egungo gizartearen erronkei irtenbideak elkar sortuz. Horretarako funtsezkoa da 11. GJHak adierazten duena, gizarteratzea sustatzeko politika eta plan integratuak hartu eta ezartzen dituzten komunitateak lortzea.

Parte-hartzea eta erantzukizun indibiduala zein kolektiboa ardatz gisa hartuz, azpimarratu behar da 4. GJHa, hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan guztiontzat ikasteko aukerak sustatzearena. Hezkuntza aldaketarako bidea eta tresna da, eta 4.7. GJHan adierazten den bezala, ziurtatu behar da pertsonak garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzen dituztela, besteak beste, bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, munduko herritarren eta aniztasunaren balorazioaren bidez.

Ezinbestekoa da 3. GJHa: bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako guztiontzat ongizatea sustatzea; oro har, ahalduntze pertsonalari eta antolaketa-ahalduntzeari harremanduz, bai eta aldaketan aktiboki parte hartu ahal izateko ondo eta gai egoteari ere. Gainera, 10.3 GJHak adierazten duen bezala, funtsezkoa da aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, inor atzean utzi gabe, baita legeak, politikak eta praktika diskriminatzaileak ezabatuz eta horri buruzko legeria, politika eta neurri egokiak sustatuz ere.

Azkenik, 17. helburua nabarmentzea ezinbestekoa da: garapen jasangarrirako

munduko aliantza biziberritzea. Adin guztietarako jendartea lortzeko, funtsezkoa da gizarteko hainbat talderen arteko aliantza eraginkorrak sustatzea eta bultzatzea, helburuak lortzeko. Aliantzek gogoeta irekirako eta errealitatei eta ikuspuntuei buruzko informazioa trukatzeko espazioak sortzen dituzte, benetako bizikidetzarako eta aldaketarako funtsezko sinergiak sortuz.

2.3. Esku-hartzearen diseinua

2.3.1. Beharrianak identifikatzea, justifikatzea eta lehenestea

Testuingurua aztertu ondoren hiru beharrian nagusi identifikatu dira:

Lehenik, belaunaldi ezberdinen pertsonak elkartzeko topaguneak izatea. Egungo jendartea sistema oso indibidualista baten menpe kokatzen da, eta horrek jendartea konpartitzen dugun pertsona ezberdinekin harreman hutsala izatea eragiten du. Belaunaldiarteko harremanak emanez gero, familia edo senide artekoa da, eta askotan inposatutako derrigorrezko arrazoiengatik, hala nola, zaintza edota konpromesuak. Hortaz, adin guztietako pertsonak elkartruckerako eta elkar-ezagutzarako gune eta espazio seguruak izatea egungo jendartearen erronka nagusietako bat da, eta esku-hartutako testuinguruak daukan beharrian nagusi bat ere.

Bigarrenik, arestian azaldu den moduan, gizarte hezitzaileek belaunaldiartekotasunarekiko gaintitu beharreko erronka batean aurrean lan nabarmena gara dezakete, belaunaldien artean espazio sozialen eraikuntza sustatuz, eta belaunaldien arteko elkarriketaren mesedetan bitartekari lana eginez. Gizarte hezitzaile berrien formakuntzan gabeziak aurkitzen dira, eta lan-eremu horretan zeregin profesionala nabarmen bat gara dezaketen arren, belaunaldiartekotasuna lantzearen beharrian hori agerikoa da.

Azkenik, garrantzi gutxikoa izan barik, aipatu beharra dago gazteek zein adinekoek komunikabideetan eta parte hartze sozialean daukaten ahotsa eta protagonismoa. Hortaz, beharrian argi baten aurrean koka gaitzke, bi adin talde horiek jendartearen funtzionamendurako eta antolaketarako zeresan nabarmena dute eta. Haien ahotsak eta egin ahal dutena ikustaraztea zein entzunaraztea asetu behar den beharra da, egun ohi egiten den paternalismoa eta horiengatik hitz egitea alde batera utziz. Gainera, bi adin-taldean parte hartze soziala sustatzea ezinbestekoa da.

2.3.2. Beharrianak helburu bihurtzea

Beharrianak identifikatu ondoren, helburu orokor bezala ondokoa proposatzen da:

- Adinekoek eta gizarte hezitzaileak izango diren gazteek elkargune bat sortzea, belaunaldien arteko ulermena, elkartasuna eta errespetua oinarri izanez eta belaunaldiartekotasunaren onurak ikustaraziz.

Hortaz, helburu orokorra lortzeko ondorengo helburu zehatzak proposatzen dira:

- Gazteen eta adinekoen arteko topagune bat sortzea, belaunaldien artean ulermen eta errespetu hobea sustatzeko
- Bizikidetzarako gune bat sustatzea, esperientziak trukatzeko eta premia komunei eta horiei erantzuteko aukera egokiei buruzko gogoeta egiteko aukera emango duena
- Gizarte hezitzaile berrien formakuntzan belaunaldiartekotasuna lantzea
- Adin guztietarako jendarteari buruzko talde-hausnarketa sustatzea
- Bi kolektiboen ahotsak entzunaraztea eta belaunaldiartekotasunaren balioak eta onurak jendartera zabaltzea eta ikustaraztea

2.3.3. Esku hartzeko aukera metodologikoa proposatzea

Proiektu hau prozesu ireki eta malgu gisa aurkezten da, aurreikusitako jarduerak praktikan jartzean ematen diren aldaketan arabera horren bideak eta ildoak aldatzeko aukera ematen duena. Gainera, proiektu horrek metodologia parte-hartzailea behar izan du, parte-hartzaileek, beren interes, kezka eta beharren arabera, eztabaidatuko diren ildo orokorrak erabaki ditzaten.

Esku-hartzerako proposatzen eta gauzatu den aukera metodologikoa Sanchez et al. autoreek (2010) egindako sarrera-gidan aipatzen diren printzipioetan oinarritzen da, izan ere, orientabide horiek nahitaez bete behar diren arau batzuk baino, zenbait kontuan hartu beharrekoak dira, belaunaldien arteko esperientziak prozesu dinamikoak izan behar baitute, eta prozesu hori testuinguruaren beharretara eta baliabideetara egokitu behar da.

Diseinatutako esku-hartzeak gida horren 4. printzipioa ardatz gisa hartu du, proiektuaren planifikazioan parte-hartzaileen inplikazioa eskatzen duena. Jarduerak egiten diren bitartean malguak izatea funtsezkoa da, beharrezkoa dena aldatuz joan dadin, betiere helburu nagusiari begira: belaunaldi ezberdinetako pertsonen elkar-ezagutzarako espazio atsegina eta segurua ahalbidetzea. Gainera, printzipio horretan zehazten denez, parte hartzera behartuta ez sentitzea funtsezkoa da, parte-hartzea norberaren interesaren eta proiektuko kide izatearen sentsazioaren ondorio izatea sustatuz, erantzukizunaren eta protagonismoaren alde eginez eta nahitaezkotasuna eta pasibotasuna baztertuz

Gidaren 1. printzipioa oinarri izanda, esku-hartzearen helburu orokor eta espezifikoak argiak, errealistak eta lorgarriak dira. Gainera, adituek 2. eta 3. printzipioetan zehazten duten gisa, programarekin zerikusia duen guztiaren gardentasuna ezinbestekoa da, eta funtsezkoa da guztiak proiektuarekin ohitzea; izan ere, horrek proiektua sostengatzea eta proiektuarekin gogoberotzea eragiten du. Horretarako, orientazio-sentsibilizazio saioak egin dira.

Saio horiek 5. printzipioan oinarritzen dira, proiektua hasi baino aurretik parte-hartzaileak aurre-prestatu behar direla ezartzen duena. Eraginkortasun-printzipioa horren arabera, funtsezkoa da orientazio-sentsibilizazio bilerak bereziak izatea, parte-hartzaileek proiektuarekiko dituzten espektatibak aske adierazi ahal izateko eta talde bakoitzak bestearekiko dituen jarrerak zein estereotipoak hautemateko.

Ekintzen hartzaileak, hau da, adinekoak zein gizarte hezkuntzako ikasleak bolondresak dira, eta gidaren 6. printzipioak aitortzen duen bezala, parte-hartzaileen motibazioa sustatzea funtsezkoa da, eta proiektu osoan zehar horren lanketa burutu behar da. Horretarako Bressler et al. autoreek (2005 in Sanchez et al., 2010) hurrengo faktoreak ezinbestekotzat hartzen dute: (1) beren ekarpenek gauzak aldatzea eta desberdinak izatea benetan lortzen dutela sentitu behar dute; (2) erronka esanguratsuei, baina ez gehiegizkoei, aurre egin behar diete; (3) talde bat (helburu komunak) direla sentitu, gozatu eta beste pertsona batzuekin harremanak izan behar dituzte; (4) beren lana balioetsi eta aitortu behar dute; (5) zereginetan aurrera egin behar dute.

Programatutako ekintzek edota dinamikek gidako hurrengo printzipioak beregain hartu dituzte ere: pertsonaren garapenaren ikuspegitik jarduera egokiak dira, kulturalki egokitzen diren jarduerak aukeratu dira eta parte-hartzaileen benetako interesekin zerikusia duten jarduerak proposatu dira, 7., 8. eta 9. printzipioek, hurrenez hurren, adierazten duten bezala. Gainera, 10. printzipioak zehazten duen gisa, pixkanaka hasiko da, programaren garapen progresiboa sekuentziaz.

2.3.4. Ekintzak

Esku hartzea zertan datzan azaldu aurretik, esan beharra dago proiektu hau online bidez burutu dela, izan ere, COVID-19ak eragindako egoerak sortutako mugak direla eta, zailtasun handiak agertu dira proiektu hau era presentzial batean aurrera eramateko. Gainera, aipatzekoa da ere, adinekoak informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT) gazteak bezain trebeak ez izan arren, gaur egun ia beharrezkoa den gaitasun bat lantzeko aukera sortzen dela. Gainera, BIZAN Judizmendiko zentroko gizarte hezitzaileak suertatu diren zailtasun edo ustekabeekin lagundu die.

Esku hartzea 5 saio ezberdinez gauzatu da: lehenengo biak orientazio-sentsibilizazio saioak, hirugarrena non bi taldeak elkar-ezagutuko eta lehenengo harremanak eta kontaktuak gauzatuko diren, laugarrenean elkarrekiko dituzten berdintasunak eta komunikabideek haien buruen islatzen dutenaren inguruan arituko diren, eta bosgarrenean *podcast* saio bat filmatuko dena, bi taldeak adin guztietarako jendarte bat nola izan beharko litzatekeelaren inguruan eztabaidatuz zein hausnartuz.

Lehenengo bi saioetan bi taldeak bananduta egon dira, hau da, orientazio-sentsibilizazio bilera bereziak izan dira, eta horietan proiektua zertan datza era osoago eta zehatzago azaldu zaie, proiektu irekia eta malgua dela argi utziz. Orientazio-lan nabarmena gauzatu izan behar da ere, proiektuaren oinarriak zehaztuz eta azalduz eta horrekiko dituzten zalantza guztiak argituz.

Saio horiei esker, parte-hartzaileak beren beharrak ulertzeko presta daitezke, eta parte-hartzaileek haiengandik zer espero duten jakin dezakete. Aipatzekoa da lehenengo bi bilera horietan talde bakoitzak dituen motibazioak landu direla. Saio horietan irekiak izatearen garrantzia argitaraztea ezinbestekoa da, eta adin anitzeko pertsonekin topatzeko jarrera irekia sustatu behar da. Horretarako, dinamizatzailerak beste adin-taldeko pertsona bat banaka irudikatzea eskatu die, gero taldean komentatuz eta eztabaida sortuz. Gainera, talde bakoitzak beste taldearentzat adin horretako pertsona bati beti egin nahi izan dion galdera bat prestatu du, hurrengo saioan elkar galde dezaten.

Gainera, adin guztietarako jendartearen inguruan hausnartu da, adin talde bakoitzak asetu beharreko dituen beharrak eta aurre egin beharreko erronkak identifikatuz eta esanez. Hortaz, belaunaldiartekotasunaren garrantzia funtsa edo mamian jarri da, guztiontzako jendarte bat lortzeko izan daitezkeen onurak zein abantailak komentatuz.

Hirugarren saioari dagokionez, elkarrekin dauden lehenengo saioa izango da, eta elkar-ezagutzara bideratuta egon da. Hasieran parte-hartzaileek aurkezpenerako gune bat izan dute, pare bat minutu bakoitzeko haien bizitza-istorioak era labur batean azal dezaten. Horrela, taldekide guztiek izenaz baino haratago ezagutuko dute, pertsona bakoitzarentzat garrantzitsuak eta esanguratsuak izan diren zenbait alderdi edo esperientzia partekatu baitituzte.

Gainera, aurkezpen indibidualen ostean, talde bakoitzak bost minutu izan ditu taldeen aurkezpena egiteko. BIZANeko adinekoak zentroan egiten duten lana azaldu diete gazteei, ze nolako ekintzak egiten dituzten ikustarazteko. Hortaz, EHUko ikasleek gizarte hezkuntza bera eta gizarte hezitzaileen lana zertan datzan azaldu diete, baliteke adinekoek ezagutu ez izana eta. Aurretik, orientazio/sentsibilizazio bileretan ohartu zaie aurkezpen edo

azalpen hori eman beharko dutela, zeozer laburra prestatu nahi izanez gero, aukera izan dezaten.

Bestalde, bi taldeei zer esan nahi duen gaztea edo adinekoa izatea definitzea eskatu zaie, gizabanakoek haien taldearekiko zein bestearekiko duten ikuspuntuak, ideiak eta usteak elkarbanatuz. Gainera, adin-talde horien barne nola sentitzen diren inguruan hausnartu da, belaunaldiak pasa ahala ze nolako aldaketak ikusten zein adin-talde bakoitzarekiko dituzten pertzepzioak komentatuz. Aipatzekoa da, orientazio/sentsibilizazio bileretan prestatutako galderak egiteko eta erantzuteko gunea baita ere eskaini zaiela.

Laugarren eta bosgarren saioei dagokionez, esan beharra dago, hasieran parte-hartzaileen izenak errepikatu direla, eta haien parte-hartzea baloratu eta eskertu dela, saio horretako parte-hartzea sustatuz. Gainera, aurreko saioetako alderdiren bat edota asteen zehar hausnartutako gogoetaren bat konpartitzeko gunea bat eskaini zaie.

Laugarren saioari jo eginez, elkarrekin aritzen diren bigarren honetan, jendartearen imajinario kolektiboan adinekoen zein gazteen irudia zein den inguruan hausnartu da, talde bakoitzak bere iritziak eta ikuspuntuak elkarbanatuz. Horretarako, bi kolektiboekiko harremana dituzten komunikabideetako berriak hartu dira. Honetan, dinamizatzailerak komunikabide idatzietan agertu diren zenbait albiste aurkeztu dizkie, egun komunikabideek pertsona horien errealitatearen zein isla islatzen dutenaren inguruan hausnarketa ahalbidetuz.

Horrenbestez, saioan zehar gazteek zein adinekoek komunikabideetan dituzten ahotsen inguruan eztabaidatzeko gunea bat sortu da, entzunda eta islatuak sentitzen diren jakiteko xedez. Gainera, konfiantza sortzeko xedez, komunikabideekiko harreman pertsonalak edota bizipenak komentatzeko gunea ahalbidetu egin da. Berriek sortzen dituzten aurreiritzien zein indartzen dituzten estereotipoen inguruan hitz egin da ere, adin talde bakoitzaren sortzen den estigmatizazio hausnartuz.

Azken saioa, hots, bosgarrena, *podcast* programaren grabaketa gauzatzeko prestatuta egongo da. Saio honetan, Nazio Batuak ezarritako “adin guztietarako jendartearen” leloaren inguruan bi belaunaldi ezberdinetako kideek mahai-inguru batean hausnartu dute. Horretarako, dinamizatzailerak, aurreko saioetan landutakoa ardatz gisa hartuz, belaunaldiarteko elkarrizketa sustatu du, gazteek zein adinekoek adin guztietarako jendarte bat lortzeko beharrezkotzat hartzen dituzten alderdiak komentatzeko espazioa izanez.

Saio hori *podcast* formatuan igoko da, edonork eskura izan dezan eta topaketa belaunaldiarteko batetik ze nolako esperientziak eta elkarrizketak zein hausnarketak ematen

diren ezagutzeko aukera ahalbidetzeko. Gainera, aipatzekoa da *podcast*-a gazteen artean goraldian dagoen komunikatzeko bide bat dela, eta proiektu honek adinekoen artean *podcast*aren komunikabidea zabaltzeko aukera ematen duela, irrati tradizionalari orohar lotuago dagoen pertsona-taldea baita.

2.3.4.1. Denboralizazioa

Esku-hartzea denboralizatzeko, kronograma⁷ bat erabili da, lan-egutegiak edo jarduerak egiteko funtsezko tresna baita, eta bertan ezarriko dira saio bakoitzaren data zein proiektu osoaren iraupena. Esku-hartzea 5 saio osatutaz dago, saio bakoitzeko iraupena ordubete ingurukoa da, eta apirila-maiatza hilabetetan gauzatu da.

Iraupenari dagokionez, orientazio-sentsibilizazio saioak, non taldeak bereizita dauden, proiektuaren hasieran egin dira, aste berdinean, eta gainerako saioak hurrengo asteetan gauzatu dira, aste bakoitzeko saio bat. Elkarrekin dauden saioak, hiru direnak, astelehenetan burutu dira, BIZAN Judizmendiko adinekoak zein etorkizunean gizarte hezitzaileak izateko ikasten duten ikasleak elkar egon ahal ziren egun bakarra baitzen. Hortaz, esan dezakegu, proiektuaren iraupena hilabete batekoa izan dela.

2.3.4.2. Baliabideak: giza baliabideak eta materialak, ekonomikoak

Baliabideekiko esan beharra dago, bi baliabide multzo ezberdin bereizi behar direla: batetik, giza baliabideak, eta, bestetik, materialak eta ekonomikoak direnak. Giza baliabideei dagokionez, aipatzekoa da dinamizatzailerak eta BIZAN Judizmendiko gizarte hezitzaileak osatzen dituztela. BIZANeko gizarte hezitzailearekin elkarlan jarraia burutu da. Dinamizatzailer nagusia UPV/EHUko gizarte hezkuntzako ikasleekin gelan aritu da, saio telematikoak dinamizatuz. Hala ere, adinekoekin era presentzialean dagoen gizarte hezitzaileak bi funtsezko funtzio izan ditu: batetik, lehen aipatutakoa, suertatu ahal diren ustekabeekin laguntzea, eta bestetik, bitartekari lana egitea, adinekoei ailegatu behar zaien informazio guztia helaraziz.

Bestetik, baliabide material zein ekonomikoekiko, aipatzekoa da UPV/EHU-n zein BIZAN Judizmendi zentroan dauden baliabide teknologikoak erabili direla, aurrekontuan⁸ bilduta daudenak. Saio telematikoak aurrera eramateko ordenagailua, bozgorailuak, kamera, mikrofonoa eta pantaila behar dira, eta horiek klasean zein zentroan dauden baliabide erabilgarriak dira. Azken saioa *podcast* formatuan grabatzeko mugikorra erabili da, eta audio editatzeko zein programa muntatzeko, *Audacity* aplikazioaren bidez egin da.

⁷ Ikus 3. eranskina: Kronograma

⁸ Ikus 4. eranskina: Aurrekontua

Kostu zero daukaten baliabide horiez gain, esku-hartzea martxan jarri duen gizarte hezitzaileak soldata bat kobratu beharko luke. Horren lanaldia ordubeteko bost saioak eta horien prestakuntzarako zein ebaluaziorako guneetaz osatuta dago, hau da, 10 orduko estimazio bat egiten da. Profesional horren lanak suposatzen duen diru-kopurua jakiteko, aurrekontua egiteko xedez, Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko Hitzarmenera⁹ joko da. Hortaz, gizarte hezitzailearen ekintzak 169,80€ kostua izango luke.

Etorkizunean esku-hartzea hau gauzatzen bada, ekintzak martxan jartzen dituen gizarte hezitzailearen zereginera jotzea ezinbestekoa litzateke. Horretarako bi kasuistika agertzen dira. Batetik, gizartze hezitzailearen lanaldiaren barne egitea, adibidez BIZAN sareko edozein zentroak beregain hartzen duen proiektu bat egitean, eta finantziazioa erakundearen aurrekontuaren barne dago. Bestetik, horrelako proiektu baterako gizarte hezitzaile bat zehazki kontratatzea, eta horretarako diru-sarrerak beharko lirateke, Eusko Jaurlaritzak Hirugarren Sektorerako ematen dituen diru-laguntzetatik¹⁰, esaterako.

2.3.5. Ebaluazioa

Esku-hartzea ebaluatzeko, metodologia kualitatibo bat erabili da; izan ere, Pinazok (2007) adierazten duen bezala, metodologia hura esplorazio-azterlanetan erabiltzen da, parte-hartzaileak programa edo proiektu jakin bati ematen ari zaizkion zentzua eta esanahia aurkitzeko; hau da, ez du bilatzen hipotesiak eta teoriak kontrastatzea, ezta emaitzak orokortzea ere, baizik eta talde edo gizabanako jakin batentzat edo batzuentzat duten esanahia interpretatzea.

Horretarako, hiru ekintza ezberdinak gauzatu dira:

Lehenik, behaketa parte-hartzailea metodoa; horren bidez, dinamizatzailak saio guztietan landa-oharrak hartu ditu, proiektuaren funtzionamendua edota proposatutako helburuak, besteak beste, ebaluatzeko. Pinazo (2007) jarraiki behaketa parte-hartzailea informazioa biltzeko bitarteko interaktiboa da, eta, horren bidez, gertaeren deskribapen onak egiteaz gain, behatzailearen pertzepzioa bera ere gehitzen du, behaketaren xehetasun bakoitza landa-oharretan idatziz (erregistroak zehatza, xehatua eta osoa izan behar du).

Bigarrenik, ebaluazio parte-hartzailea egin da, taldeko parte-hartzaile guztiek esku-hartzearen funtzionamenduari buruzko hausnarketak edo hobetu beharreko alderdiak komentatzeko aukera eta espazioa izan dezaten. Ucar et al. adituen (2014) arabera,

⁹ Bizkaiko Esku-Hartze Sozialeko Hitzarmena: <https://www.hirekin.net/wp-content/uploads/2021/01/Convenio-2017-2021-BOB-eusk.pdf>

¹⁰ Informazio gehigarria: Eusko Jaurlaritzako Hirugarren Sektorerako diru-laguntzak 2022: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/hirugarren-sektorea-2022/web01-tramite/eu/>

ebaluazio-eredu hau inplikaturako ikaskuntza-prozesuetara bideratzen da programaren emaitzak kontrolatzera baino gehiago; eta helburua da pertsonen balioa ematea, banaka eta taldeka, parte hartzen duten taldeko edo komunitateko jardura eta proiektuei, edo eragina jasan dezaketen emaitzei. Azpimarratu behar da norberaren ekintzak eta proiektuak baloratzeko gogoeta- eta deliberazio-prozesu hori, batez ere, ikaskuntza, hezkuntza eta ahalduak modu konplexuan uztartzen dituen gizarte- eta hezkuntza-prozesua dela (Úcar et al., 2014).

Kaplanek (2007) dioen bezala, funtsezkoa da parte-hartzaileei aukera esanguratsuak ematea ebaluazio-prozesuan eragiteko, inplikatze eta erantzukizun-zentzua areagotzeko. Horretarako, saio bakoitzaren amaieran parte-hartzaile guztiek hausnarketaren bat, hobekuntza-proposamenen bat edo hurrengo saioan aztertu beharreko gairen bat komentatu eta proposatu dute. Azken saioan, saio guztien ebaluazio orokorra egin da, eta parte-hartzaileek dinamizatzaileak egindako galdera batzuei¹¹ erantzun eta iruzkindu dute.

Oinarriztat, Langford eta Mayok (2001, in Sanchez eta Tallada, 2007) adierazitako zenbait printzipio orientagarri eta praktikoa hartu dira:

- Parte-hartzaileek ebaluatzerakoan esaten dutena serio hartuko da, eta eroso sentitzea eta beren ikuspuntuak beldurrik gabe adieraztea lortzen saiatuko da. Gainera, jendeari bere ideiak, ikuspuntuak eta sentimenduak adierazteko behar duen hizkuntza aurkitzen lagunduko zaio; izan ere, pertsona asko ez daude jendaurrean ebaluazio bat egitera ohituta.
- Ebaluazioa egiteko denbora nahikoa izango dela aurreikusi da, eta, beraz, ez da azken unean azkar egin behar izango. Lan-saio bakoitzaren zati bat programari buruz hitz egiteko eta aldatu beharko litzatekeenari buruzko iradokizunak egiteko gordeko da. Horrenbestez, disfrutatzen saiatuko da, eta ez zama gisa bizitzen.
- Ebaluazioan inplikatzen direnei iradokiko zaie egiten den kritika ororekin batera hobekuntzarako proposamen bat aurkeztu beharko dela. Gainera, taldearen lana eta ahalegina aitortuko da, proposamen edo alderdi partekatuak beste saioetan aipatuz.

Azkenik, parte hartzen duen beste gizarte-hezitzailearekin batera egindako lanarekin jarraituz, elkarrizketa bat burutu da, zuzeneko informazioa lortzeko eta elkarrizketatuaren esperientzia, sentimenduak eta iritzia sakon ezagutzeko. Proiektua amaitu ondoren, elkarrizketa erdiegituratu¹² bat egin da, hezitzaileak, profesional gisa, esku-hartzearen

¹¹ Ikus 5. eranskina: Ebaluaziorako galderak (azken saioan).

¹² Ikus 6. eranskina: Ebaluaziorako elkarrizketa erdiegituratuaren gidioa (BIZAN Judizmendiko gizarte hezitzailea).

alderdi batzuk komentatzeko eta ebaluatzeko xedez. Hori guztia galderen bidez garatu da, Saenzek (2007) adierazi bezala, hurrengo ezaugarriak betez: irekiak, argiak, bereziak eta neutralak.

2.4. Esku-hartzea abian jartzea

Esku-hartzea martxan jartzeko lau fase bereizi dira:

Lehenengo fasea proiekturako ezinbestekoak ziren agente klabeekin kontaktatzean datza. Horretan, BIZAN Judizmendi adinekoen gizarte eta kultura zentroko gizarte hezitzailearekin eta UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako irakaslearekin kontaktatu da, horiek parte hartzaileekiko bitartekari lana egin dezaten. Belaunaldi arteko esperientzietan parte hartzaileak ezinbestekoak dira, eta sareko lan horren bidez, parte-hartzaileak lortzea bideragarriagoa da.

Bigarren fasean orientazio-sentsibilizazio saioak gauzatu dira, aurretik azaldu den bezala, saio bereziak izan direnak, hau da, adinekoak eta gazteak ez dira topatu saio horietan, itxaropenak eta adin-talde bakoitzak bestearekiko dituen estereotipoak zein jarrerak hautemateko xedez. Gainera, saio horietan parte-hartzaileekin lehenengo harreman edo kontaktu zuzenak egin dira, bitartekaririk gabe, proiektuaren oinarriak eta ildoak argi azalduz.

Hirugarren faseari dagokionez, adinekoak eta gizarte hezkuntzako ikasleak elkarrekin egon diren saioak burutu dira, zeinetan zenbait gaien inguruko elkarrizketa eta elkartrukea eman den. Horietan, bideodeien bidez, belaunaldiarteko elkartasuna sustatu da, eta dinamika eta ekintza anitzen medioz, adin ezberdinetako pertsonen elkar-ezagutza eta errespetua bultzatu da. Bestalde, azken saioa *podcast* programa bat grabatzera zuzenduta egon da.

Azken fasea, hots, laugarrena, *podcast* programaren muntaketara bideratuta egon da. Horretan, esku-hartzea martxan jarri duen gizarte hezitzaileak, Audacity muntaketa-aplikazioaren medioz, azken saioan grabatutako elkarrizketak eta hausnarketa-trukea *podcast* programa batean bildu eta muntatu ditu, programa entzun nahi duena eskura izatea ahalbidetuz. Podcast-a hurrengo linkan eskuragarria dago: [belaunaldi arteko podcast-a](#). Horrenbestez, ODSirratia proiektuaren barruan, hurrengo hilabetetan planifikatuta dago errepositorio-web bat sortzea eta bertan *podcast*-a txertatuko da.

2.5. Esku-hartzearen ebaluazioa

Esku-hartzearen ebaluazioan sakondu aurretik, azpimarratu beharago dago

arrakasta nabarmena izan dela, helburu zehatz guztiak bete dira, helburu orokorra lortuz.

Behaketa parte-hartzailea metodoaren bitartez, hau da, dinamizatzailleak saio guztietan hartutako landa-oharren bitartez, saioetan garatu den giroa eta horren funtzionamendua ebaluatzea posiblea izan da. Hasiera batean, gazteek aurreiritzi gehiago zituzten, eta jarrera urduriago edo itxiago bat aurkeztu zuten. Adinekoek gogo itzelak adierazi zituzten, eta zentroan egiten zituzten proiektu guztiak ilusioz komentatzean, ikasleen jarrera askoz irekiagoa bihurtu zen. Hurrengo gertakaria inflexio-puntutzat gisa har daiteke: BIZANeko andre batek adierazi zuen eskubideen alde borrokatzera manifestazio batera joan zela, eta ikasle batek galdera zuzena egin zion, elkarrizketa eta entzute aktiboa sortuz. Saioa aurrera pasa ahala, sinergia oso politak sortu ziren, hurrengo saioetarako oinarri sendoa ezarriz.

Elkarrizketarako eta elkar trukerako sortutako espazioa, segurua eta eroso zen parte hartzaile guztientzat, eta haien artean bizitza pertsonaleko barneko esperientziak eta ikuspuntuak trukatu zituzten, elkarrizketa eta entzute aktiboa gero eta aberasgarriagoak izanik. Komunikabideetan agertzen diren berrien eta islatzen den irudiaren inguruan hitz egitean, bizipen pertsonalak partekatzen zituzten bitartean, adostasun handiak aurkitu zituzten haien artean, jendarteko zenbait alderdi era berean ikusten eta pentsatzen zituztela ezagutzen. Egoera zehatz bat esatearren, aipatzekoa da komunikabideen sentsazionalismoa eta taldeen homogeneizazioaren inguruan hitz egiterakoan ikasle batek komentatutako hausnarketa: *“si es que nos pasa lo mismo a nosotros y a vosotros, que casi siempre hablan en nuestro nombre, que en vez de ser los protagonistas y hablar de las cosas que nos afectan, hablan por nosotros”* (ikaslea 1).

Elkarrizketetan zehar, agerikoa izan zen haiek adin-taldeen arteko adostasun puntuez kontziente zirela, adin guztietarako jendartea lortzeko beharrezkoak diren politiketan edo neurrietan, besteak beste. Azkenik, *podcast*aren grabaketan nabaria izan zen ikuspuntuak eta iritziak konpartitzeko harremanak aurreko saioetan eratu egin zirela. Laburbilduz, aitortu behar da esku-hartzea aurrera joan ahala, hitz egiteko jarrera irekiagoa zela, eta horien artean elkarrizketak oso egokiak zirela, entzute aktiboa eta errespetua ardatz gisa hartuz. Parte hartzaileek gero eta interes handiago aurkezten zuten jorrotutako gaiekiko, baina are gehiago, beste adin taldeko kideek partekatutako iritzi, ikuspuntu edo esperientziakiko.

Ebaluazio parte-hartzaileari dagokionez, non taldeko parte-hartzaile guztiek funtzionamendua, gertatutakoa, hausnartutakoa edota hobekuntzen inguruan aritzeko gunea zuten, esan beharra dago, ekarpen oso aberasgarriak egin zituztela. Bi adin taldeek adierazi zuten haien itxaropenak gainditu egin zirela, aurretik pentsatzen zuten baina

aberasgarriagoa eta onuragarriagoa izanez. Gazteek aurretik elkarrizketa serioagoak edo errealitate triste edo goibel baten aurrean aurkituko zirela uste zuten, eta lehenengo saiotik konturatu ziren elkarrizketa horiek entretenigarriak eta oso aberasgarriak izango zirela. Adinekoek, gazteen profilari dagokionez, hasiera batean aurreikusten zutena aurkitu zutenarekin alderatuz, harrigarria izan zela adierazi zuten, gazteriaren alderdi positiboak baloratuz.

Saioak pasa ahala, bi adin-taldeek aitortu zuten gero eta dinamikoago eta interesgarriagoa zela, haien jarrera gero eta irekiago baitzen eta espazioak eta sortutako harremanek gero eta elkarrizketarako-aukera handiagoa eskaintzen baitzuten. Izan ere, aipatzekoa da bi taldeek bizi izandako muga eta hobetzeko alderdiaren inguruan galdetzean, muga telematikoa aitortzen zutela, horrek harremana gertuagoa eta elkartrukea oztopatzen zuenaren sentazioa baitzuten. Gainera, IKTek eragin ditzaketen eragozpenek (soinu arazoak edota jariakortasuna moteltzea, besteak beste) momentu batzuetan arreta galtzea edota elkarrizketa kaltetzea eragin dutela adierazi zuten. Hala ere, ikasle batek iruzkindu zuen bezala, muga telematikoa orohar gainditu da, eta medio horren bitartez egiteak ahalbidetu du horrelako proiektua egin ahal izatea, baliteke beste medio batez ezin egin izana.

Azken saioaren amaieran, parte-hartzaileek proiektua orohar ebaluatzeko gunea izan zuten, eta horretan, guztiek bat egin zuten belaunaldiarteko esperientzia oso aberasgarria izan zela, eta beste adin-taldearen kontzeptu positiboa indartzeko oso lagungarria ere. Gainera, bi taldeak bat datoz proiektuak saio gehiago izango balitu, horietan gogotsu parte hartuko zutela, horrelako ekintzak ezagutzeko eta ikasteko oso onuragarria baitira argudiatuz. Horrenbestez, muga telematikoaz gain, agure batek adierazi eta taldeak onartu zuen bezala: *“nos hemos sentido muy cercanos a pesar de ser a través de una pantalla, nada frío, mucho aprendizaje y hemos abierto la cabeza, hemos aprendido mucho de vosotros, de la gente joven, que sois el futuro”* (adineko 1).

BIZAN Judizmendiko gizarte hezitzailearekin elkar-ebaluazio eginez gero, aurretik aipatu diren ideiak eta hobekuntzak berretsi daitezke. Honek horrelako proiektuak edo esperientzak ezinbestekotzat hartzen ditu gizarte hezitzaile berrien prestakuntzarako zein adinekoen garapen sozioemozionalerako. Gainera, adinekoekin astero lan egiten duen profesional gisa, oso positibotzat ebaluatzen du proiektu honen izaera irekia, zentro beran edota beste erakundeekin egin dituzten belaunaldiarteko esperientzietan, saio oso lerrodonak eta zehatzak izan baitira. Honetan, elkarrizketa era natural batean sortu da, haien interesak ardatz gisa hartuta, eta parte hartzaile guztientzat oso aberasgarria izan da *“ya que no disponen de estos encuentros en el día a día de manera natural”* (gizarte

hezitzailea).

Hortaz, berretsi daiteke esku-hartzearen helburu orokorra bete eta lortu dela, adinekoek eta etorkizunean gizarte hezitzaileak izango diren ikasle gazteek belaunaldien arteko ulermena, elkartasuna eta errespetua printzipio gisa izan diuen elkargune bat sortu baitute; eta gainera, *podcast* grabaketaren medioz, belaunaldiarteko esperientzia baten emaitzak eta onurak ikustarazi daitezke.

3. Ondorioak

Arestian egiaztatu ahal izan denez, jendartea biztanleriaren adintzearen egoera baten aurrean dago, non adintzearen adintzea ematen den (Fernández eta Ponce de León, 2013; Giró, 2012; Herrera eta Guzmán, 2012). Horrek, jendartearentzat erronka handia suposatzen du (Herrera eta Guzmán, 2012), eta prebentzio-neurri sozial zein esku hartzeko estrategia berriak eskatzen ditu erakunde publikoen aldetik (Fernández eta Ponce de León, 2013). Horrenbestez, azpimarratu behar da Baronek (2021) konpartitutako ondorioa, egungo jendartearen egoerak zenbait sistema eta prozesu kolokan jarri dituela, baina, hala ere, esploratzeko, ezagutzeko eta aktibatzeko aukera asko ezkututzen dituela.

Horretarako, eta partaidetza eta gizarte-kohesioa areagotzeko, belaunaldien arteko esperientziak aurkezten dira, hala nola, honetan aurrera eramena dena. Hartu-Emanak (d.g) elkarteak adierazitako oharra azpimarratuz, belaunaldi arteko programen azken helburua adin guztietarako jendarte bat eraikitzea dela, Newman eta Sanchez (2007) edo Hatton-Yeo (2007) bezalako autoreei jarraiki ahaztu gabe belaunaldien arteko elkartasuna.

Belaunaldi arteko esperientziek dakartzaten edo ekar ditzaketen onurei dagokienez (MacCallum et al., 2006 in Pinazo eta Kaplan, 2007; Marx et al., 2004 in Pinazo eta Kaplan, 2007; Santiago, 2019), nabarmendu behar dago horietako asko esperientzia honetan bizi izan direla: adinekoek gozatu eta bizitasuna nolabait handitu dute, komunikatzeko gaitasunak landu dituzte, jende gazteari buruz ikasi dute eta desberdintasunaren edo errespetuaren aurrean jarri dira; gazteek, aldiz, adinekoei buruzko pertzepzioetan eta jarreretan aldaketa positiboak izan dituzte, adintzeari eta adinekoen heterogeneotasunari buruzko ezagutza handitu dute, eta horiekiko errespetua ere bai, eta gozatu egin dute; eta komunitatea, azkenik, belaunaldi-talderen oztopoak/mugak eta estereotipoak ezabatzea zein portaera sozial eta kolektiboko ereduak (kohesio kulturala eta soziala) sortzearen alde aurrera egin da, sare sozialak piztuz.

Esperientzia honek pertsona horiek zuzenean eta irratijarduera batean aktiboki parte hartuz sortutako elkarriketari garrantzia eman dio, eta elkarrekintza, ezinbestean, IKTen

bidezko konektibitatearen bitartez egin da. Parte-hartzaile guztiek zuzenean edo aurrez-aurre egotea gustatuko zitzaizela adierazi dute, eta horrek mugak ekarri dituela, baina azpimarratu behar da esku-hartzeak adinekoak hain beharrezkoak diren IKTetara hurbiltzeko aukera beregain hartu zuela, eta, oztopoa izan arren, topaketak errazteko eta ahalbidetzeko tresna izan dela; izan ere, horregatik ez balitz, litekeena da belaunaldien arteko topaketa eta elkarrizketa horiek ez egitea.

Hezkuntza-esperientzia honek irрати-baliabidearen alde egin du, zehazki podcast formatuaren alde. Irrati-baliabidea belaunaldien arteko esperientzietan elementu erabilgarria bihurtzen da, belaunaldien arteko ezagutza-trukea ahalbidetuz eta mugiaraziz modu ludiko, malgu, aktibo eta inklusibo batean; eta normalean ahotsak partekatze espazioa ez duten bi kolektibori ahotsa emanez. Aipatzekoa da proiektua esperientzia pilotu gisa aurkezten dela, eta izandako arrakasta handia ikusita, aholkagarria eta bideragarria litzatekeela saio-kopurua handitzea. Horrela, parte-hartzaileen inplikazio zuzena areagotzea posiblea izango litzateke, eta *podcast* programaren sorreran, edizioan eta muntaian izatea planteatzen da, talde-lana, lankidetzak, komunikazio-gaitasunak, parte-hartzea eta pentsamendu kritikoa sustatzeko xedez.

Esan beharra dago, belaunaldien arteko esperientzien ikustaraztean ohi mugak edo hutsuneak agertzen direla, eta esperientzia honen kasuan, belaunaldien arteko esperientzia jendartera zabaltzeko erraza dela, proiektuaren barne entzungai den produktu bat sortzen baita. Horrek esku-hartzearen indargune nabarmen bezala hartzen da. Horrelako esperientzien mugei jo eginez, parte-hartzaileen disponibilitatea eta elkartruckerako egokiak diren guneak aurkitzeko zailtasunak agertzen dira, ordutegiak bateratzeko edo espazioak zehazteko, askotan prozesua oso gaitx bihurtuz.

Esku-hartze honen bidez, bi belaunaldietako kideak hurbiltzea zein elkarbizitza eta elkar-ezagutza lagunduko dieten jarduerak partekatzea lortu da. Gainera, antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertuz eta ikuspuntuak alderatuz, bien arteko errespetua areagotzea eta zenbait estereotipoak gainditzea lortu da. Azpimarratzekoa da ere, bi belaunaldien arteko desadostasuna ezjakintasunetik, komunikabideen irudikapen homogeneousatzaileetatik eta elkartruckerako eta belaunaldien arteko elkarrizketarako topaketa edo espazio natural eta egunerokorik ezetik datorrela.

Nabarmendu beharreko beste lorpen bat, parte hartu duten gizarte-hezkuntzako ikasle gazteen paradigma-aldaketa eta motibazio handia izan da. Ikasleek, esperientzian aktiboki parte hartu ondoren, profesional gisa lan egitea planteatzen dute, bai adinekoen parte-hartzea areagotzea helburu duten eta pertsona horien gizarte-garapenean eta bizi-kalitatearen hobekuntzan eragina duten esku-hartze sozioheitzzaileetan (Martinez de

Miguel et al., 2016) bai belaunaldien arteko proiektuetan.

Paradigma-aldaketa hori funtsezkotzat hartzen da; izan ere, etorkizuneko hezitzaileak izango dira belaunaldi-bakarrizketa belaunaldien arteko elkarrizketa bilakatuko dutenak (Mañós, 2008), gizabanakoen gizarteratze formalaren prozesua aktibatu dezaketenak (Calvo de Mora, 2014), garapen jasangarria sustatuko duten gizarte- eta hezkuntza-ekimenak garatuko dituztenak (Gallardo-López eta García-Lázaro, 2021), paternalismotik eta asistentzialismotik urrun dauden esku-hartze soziohezitzaileak egingo dituztenak (Belchi et al, 2017), eta, azken finean, adin guztietarako jendartea lortzeko xedez lan egin dezaketenak eta lan egiten dutenak.

Azken ondorio gisa, azpimarratu behar da garrantzitsua dela beharrezko aldaketa horietan gizarte osoa eta gobernuak inplikatzeko, adinekoen ongizatea sustatuko duten, pertsona guztiek gizartean aktiboki parte hartzea ahalbidetuko duten eta belaunaldien arteko topaketan eta elkarrizketan oinarrituko den adin guztietarako jendartea sortzea sustatu eta landuko duten gizarte-politikak sortuz. Azken finean, hezkuntza-, gizarte- eta kultura-aldaketek gizarte-politiken eta inplikaturako eragile guztien konpromiso aktiboa eskatzen dute, erakunde publikoek gizarte-bizitza hori garatzeko gunea kudeatzen dute.

4. Etika profesionala eta datuen babesa

Esku-hartze osoan zehar parte-hartzaileen eskubideak bermatu dira, gizarte hezitzailearen Kode Deontologikoan¹³ jasotako printzipioak eta arau deontologikoak jarraituz eta errespetatuz. Gainera, *podcast* programarako azken saioa grabatu behar izan denez, datuen babeserako, parte-hartzaile guztiei baimena¹⁴ ematea eta sinatzea eskatu zaie, era bolondres eta aske batean proiektuan parte hartzeko onespina emanaz.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Abades, M., eta Rayón, E. (2012). El envejecimiento en España: ¿un reto o problema social?. *Gerokomos*, 23(4), 151-155.

Abarrategui, L. (2019). Radio escolar: estudio evaluativo de una experiencia intergeneracional. *Anuario Electrónico de Estudios en Comunicación Social "Disertaciones"*, 12(2), 32-49.

Alvarado, A. M., eta Salazar, Á. M. (2014). Análisis del concepto de envejecimiento. *Gerokomos*, 25(2), 57-62.

¹³ Gizarte hezitzailearen Kode Deontologikoa: <https://www.eduso.net/wp-content/uploads/documentos/143.pdf>

¹⁴ Ikus 7. eranskina: Baimen Informatua.

- Amer, J., Pascual, B., eta March, M. X. (2016). Las relaciones intergeneracionales en Europa, presente y futuro. Empoderamiento de las personas mayores. In C. Orte y M. Vives (eds.), *Compartir la infancia. Programas intergeneracionales en las escuelas*, 11-30. Octaedro
- Aranibar, P. (2001). Acercamiento conceptual a la situación del adulto mayor en América Latina. *CEPAL, Serie Población y Desarrollo*, 21, 1-70.
- Arias, E., Gómez, S., eta Rubio, B. (2008). La radio como herramienta de aprendizaje: "Miradas", una experiencia de radio intergeneracional. *Papeles Salmantinos de Educación*, 10, 101-113.
- Bárcena, C., Iglesias, J. A., Galán, M. I., eta Abella, V. (2009). Dependencia y edadismo. Implicaciones para el cuidado. *Revista Enfermería CyL*, 1(1), 46-52.
- Barone, E. (2021). Hacia una sociedad longeva sostenible: instrumentalizando la intergeneracionalidad y el diseño centrado en la persona. *Esic market*, 169, 427-449.
- Belchi, G., Martínez de Miguel, S., eta Escarbajal A. (2017). El educador social en la promoción y construcción de la ciudadanía activa en las personas mayores. *RES: Revista de Educación Social*, 24, 681-688.
- BIZAN Adinekoen Gizarte eta Kultura Zentroak (2009). Reglamento regulador de los Centros Socioculturales de Mayores [Reglamento]. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Departamento de Políticas Sociales, Personas Mayores e Infancia. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/47/55/64755.pdf>
- Calvo de Mora, M. (2014). La educación social frente al impacto del envejecimiento. *Madurez activa*, 25, 14-15.
- Domènech, J. M. (2019). El envejecimiento de la población española y su impacto macroeconómico. *Papeles de Economía Española*, 161, 100-111.
- Fernández, T., eta Ponce de León, L. (2013). Envejecimiento activo: recomendaciones para la intervención social desde el modelo de gestión de casos. *Portularia*, 13(1), 87-97.
- Gallardo-López, J. A., eta García-Lázaro, I. (2021). *ODS y educación ambiental, el papel de la educación social en la construcción de una ciudadanía comprometida con el desarrollo sostenible*. Congreso Internacional 2021-XXXIII Seminario Interuniversitario de Pedagogía Social y la Sociedad Iberoamericana de Pedagogía

Social (SIPS). <https://bit.ly/3jD3fgo>

Giró, J. (2006). El envejecimiento activo en la sociedad española. *Envejecimiento activo, envejecimiento en positivo*, 47, 15-36.

Giró, J. (2012). La externalización del cuidado. Inmigración y género. *Envejecimiento poblacional y el reto de la dependencia. El desafío del envejecimiento en los sistemas sanitarios y sociales de España y Europa*, 71-86.

Gutiérrez, M., eta Hernández, D. (2013). Los beneficios de los programas intergeneracionales desde la perspectiva de los profesionales. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, 21, 213-235.

Hartu-Emanak (d.g.). Los Programas Intergeneracionales. Una sociedad para todas las edades. *Solidaridad intergeneracional y cohesión social*. 9. <https://www.hartuemanak.org/wp-content/uploads/2015/08/Programas-intergeneracionales.pdf>

Hatton-Yeo, A. (2007). Programas intergeneracionales, solidaridad intergeneracional y cohesión social. In M. Sanchez (zuz.), *Programas intergeneracionales: hacia una sociedad para todas las edades*, 23, 123-139. Fundación La Caixa.

Herrera, A., eta Guzmán, A. (2012). Reflexiones sobre calidad de vida, dignidad y envejecimiento. *Revista Médica Clínica Las Condes*, 23(1), 65-76.

Kaplan, M. (2007). La evaluación de los programas intergeneracionales de mejora de la comunidad, 101-118. M. Sanchez (zuz.), *La evaluación de los programas intergeneracionales*, 21003. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO). <https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/evalprogramasinterg.pdf#page=102>

Mañós, Q. (1995). El educador social en el ámbito de las personas mayores. *Educación social: revista de intervención socioeducativa*, 1, 62-76.

Mañós, Q. (2008). Educación y Personas Mayores: De los antecedentes a los retos de la intervención. *RES: Revista de Educación Social*, 8. <https://eduso.net/res/revista/8/marco-teorico/educacion-y-personas-mayores-de-los-antecedentes-a-los-retos-de-la-intervencion>

Martinez de Miguel, S., Escarbajal, A., eta Salmerón, J. A. (2016). El educador social en los centros para personas mayores. Respuestas socioeducativas para una nueva

generación de mayores. *Educar*, 52(2), 451-467.

Melgarejo, I., eta Rodríguez, M. D. M. (2013). La radio como recurso didáctico en el aula de infantil y primaria: los podcast y su naturaleza educativa. *Tendencias Pedagógicas*, 21, 29 -46.

Muñoz, M. R. (2017). El enfoque intergeneracional: del contexto global al contexto local de Alcobendas. *Revista de Educación Social*, 25, 114-133.

Nazio Batuak (1995). Marco conceptual del programa para los preparativos y la observancia del Año Internacional de las Personas de Edad en 1999. A/50/114.

Newman, S., eta Sanchez, M. (2007). Los programas intergeneracionales: concepto, historia y modelos. In M. Sanchez (zuz.), *Programas intergeneracionales: hacia una sociedad para todas las edades*, 23, 37-69. Fundación La Caixa.

Osasunaren Mundu Erakundea, OME (1974). Planificación y organización de los servicios geriátricos: informe de un Comité de Expertos. http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/38783/WHO_TRS_548_spa.pdf;jsessionid=8CC2D84D3B7CD00ACF85CDC692856570?sequence=1

Osasunaren Mundu Erakundea, OME (2002). Envejecimiento activo: un marco político. *Revista Española de Geriatría y Gerontología*, 37 (S2), 74-105.

Pinazo, S. (2007). Introducción a algunos métodos y técnicas útiles para evaluar programas intergeneracionales. In M. Sanchez (zuz.), *La evaluación de los programas intergeneracionales*, 21003, 49-66. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO). <https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/evalprogramasinterg.pdf#page=50>

Pinazo, S., eta Kaplan, M. (2007). Los beneficios de los programas intergeneracionales. In M. Sanchez (zuz.), *Programas intergeneracionales: hacia una sociedad para todas las edades*, 23, 70-101. Fundación La Caixa. https://www.aepumayores.org/sites/default/files/Programas_Intergeneracionales_Coleccion_Estudios_Sociales_vol23_es.pdf

Saez, J. (2007). La entrevista como técnica de obtención de información en los programas intergeneracionales. In M. Sanchez (zuz.), *La evaluación de los programas intergeneracionales*, 21003, 83-100. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).

<https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/evalprogramasinterg.pdf#page=84>

Sánchez, M., eta Díaz, P. (2005). Los programas intergeneracionales. In S. Pinazo y M. Sánchez (zuz.), *Gerontología. Actualización, innovación y propuestas*, 393-430. Pearson Prentice Hall.
<https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/0c07sanchezzydaz-pearson.pdf>

Sanchez, M., Kaplan, M., eta Saez, J. (2010). Programas intergeneracionales: guía introductoria. *Planificación e implementación de un programa intergeneracional*, 49-60. Ministerio de Sanidad y Política Social Secretaría General de Política Social e IMSERSO.
<https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/programasintergeneracionales31.pdf>

Sanchez, M., eta Tallada, C. (2007). Prácticas efectivas en la evaluación de los programas intergeneracionales. Seis ejemplos internacionales. In M. Sanchez (zuz.), *La evaluación de los programas intergeneracionales*, 21003, 119-132. Instituto de Mayores y Servicios Sociales (IMSERSO).
<https://www.imserso.es/InterPresent1/groups/imserso/documents/binario/evalprogramasinterg.pdf#page=120>

Santiago, D. (2019). Aprendizaje por interacción: beneficios del aprendizaje intergeneracional en niños/as y personas mayores. (Trabajo Fin de Grado Inédito). Universidad de Sevilla, Sevilla. <https://hdl.handle.net/11441/90632>

Sanz, L., Gómez, S., eta Jiménez, E. (2021). Tiempos de pandemia: el podcast y la participación como herramienta de encuentro y salud intergeneracional. *Acciones e Investigaciones Sociales*, 42, 113-132.

Tarrés, S. (2002). Vejez y sociedad multicultural. *Gazeta de Antropología*, 18(5).
http://www.gazeta-antropologia.es/wp-content/uploads/G18_05Sol_Tarres_Chamorro.pdf

Torregrosa, J. F. (2006). *Los medios audiovisuales en la educación*. Ediciones Alfar.

Torres-Degró, A. (2010). Envejecimiento demográfico: Un acercamiento a los métodos cuantitativos. *CIDE digital*, 1(2), 79-102.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa. (2019). *Proyecciones*

Población del Instituto Nacional de Estadística y Previsiones Demográficas de la Autoridad Independiente de Responsabilidad Fiscal.

https://www.miteco.gob.es/es/reto-demografico/temas/documentos-interes/proyeccionesdemograficas_ine_airef_tcm30-517794.pdf

Úcar, X., Heras, P., eta Soler, P. (2014). La evaluación participativa de acciones comunitarias como metodología de aprendizaje para el empoderamiento personal y comunitario: Estudio de casos y procesos de empoderamiento. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, 24, 21-47.

Villafuerte, J., Alonso, Y. A., Alonso, Y., Alcaide, Y., Leyva, I., eta Arteaga, Y. (2017). El bienestar y calidad de vida del adulto mayor, un reto para la acción intersectorial. *Medisur*, 15(1), 85-92.

